

Elkarteak:

Lehiakideen arteko alianta estrategikoak: beste kanpamendu batekin elkartu gara hain zuzen ere Bakioko surf kanpamenduekin, talde jarduerak edo lehiaketan antolatzeke bi kanpamenduen umeen artean; jende berria ezagutzeko, beste kanpamenduaren funtzionamendua aztertzeke eta umeen lehiakortasun osasuntsua sustatzeko. Egin ahal ditugun jarduerak hauek dira: Surf lehiaketak, multikirol lehiaketak, futbol eta saskibalo partiduak, txangoak piraguekin bi kanpamenduen umeak nahastuz. Jarduera sozialak ere landuko ditugu, adibidez, taldeak egiten ditugu eta bakoitzak esan behar ditu ahoz bi gezur eta egi bat eta besteek asmatu behar dute, horrela gehiago ezagutzen dira, bere imajinazioa garatuko dute eta mintzamina hobetuko dute. Aste bat haiek etorriko dira eta beste aste bat joango gara gu haiek proposatzen digutena egitera. Hau egingo genuke asteburuetan.

Erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko:

Decathlon: kirolak edo jokuak egiteko materiala eskuratzeko, prezio akordio baten bidez. Eskatuko genuke tenis raketak eta pilotak, surf taulak, piraguak, mangitoak, segurtasun txalekoa, saskibalo eta futboleko pilotak, boleibol eta tenis sareak...

Ausolan: elikagaiak eskatzeko, kantitate handia eskatuko dugunez arrazoizko prezioa adostu. Gosaltzeko: esnea (laktosarik gabekoa), zukua, zerealak, galletak, fruta, yogurta, tostadak), hamaiketakorako: fruta (alergiak kontutan izanda), bazkaltzeko: asteko menuaren arabera (haragia, arraina, oilazkoa, barazkiak...), merienda: ogitarteko (hestebeteakoa, begetarianoa), afaltzeko: asteko menuaren arabera (haragia, arraina, oilazkoa, barazkiak...)

Factorycolchon.es: umeentzako oheak eskaintzen dizkigute prezio oso merkean. 30 gela egongo dira, 15 neskeentzako eta beste 15 mutileentzako, gela bakoitzean 10 ume egongo dira; beraz, 5 litera gela bakoitzerako beharko ditugu, hau da, 150 literak.

Gure negozio optimizatzeko, beste enprekin elkarlanean aritzen gara Ausolan, Decathlon eta Factory Colchonekin. Elkarlan horrek aukera ematen digu baliabideak partekatzeko edo eskuratzeko, eta horrek gure kanpamenduaren errentagarritasuna eta kalitatea hobetzen laguntzen digu. Bezeroentzako sinergia sortzen dugu, hau da, elkarrekin lan egiteak onura gehiago ekartzen die gure bezeroei, eta aldi berean, kostuak murrizten laguntzen digu. Horrela, merkatuan lehiakorragoak bihurtzen gara, beste kanpamendu batekin alderatuta, eta gure zerbitzuen kalitatea hobetzen dugu. Elkarlana, beraz, funtsezkoa da gure arrakastarako, eta horrek aukera ematen digu etengabe hobetzeko eta gure bezeroen esperientzia hobetzeko

Beste enpresa batzuekin lan egiten, hornitzaileak eta baliabideak dibertsifikatzen ditugu eta horrek bazkide bakar baten menpekotasuna murrizten du, bakarrik lan ez egiteko. Horrek arriskuak murrizten ditu, kanpamendurako esperientzia seguruagoa emateko.

Baliabideak eskuratzea helburuarekin lotuko dugu, eta horrek hainbat arrazoi ditu. Lehenik eta behin, Bakioko surf kanpamenduarekin egindako aliantzak aukera ematen digu bi kanpamenduen artean materialak eta baliabideak partekatzeko. Horrela, kirol ekipamenduak, elikagaiak eta oheak eskuratzeko prozesua errazten dugu, eta horrek kostuak murrizten laguntzen digu.

Adibidez, Decathlonekin izandako akordioak kirol materiala prezio lehiakorrean eskuratzeko aukera ematen digu, eta Ausolanekin elikagaiak kantitate handietan eskuratzeko aukera, prezio arrazoizkoetan. Horrela, gure kanpamenduaren funtzionamendua hobetzen dugu, eta aldi berean, umeen esperientzia hobetzen dugu, material egokia eta kalitatezkoa izateak garrantzi handia duelako.

Gainera, Factorycolchon.es-en laguntzarekin, umeentzako oheak prezio merkean eskuratzea lortzen dugu, eta horrek gure kanpamenduaren logistikari laguntzen dio, gela bakoitzean beharrezko litera kopurua bermatuz.

Elkarlana baliabideak eskuratzeko helburuarekin lotzen dugunez, arriskuak murrizten ditugu, bazkide bakar baten menpekotasuna saihestuz.